



EKONOMIA ETA TURISMO DEPARTAMENTUA

JARDUERA NAGUSIAK

Enpresaren eta enpleguaren jarduera eta izpiritua sustatzea  
 Urrats programa  
 Enplegua sustatzea  
 Jakintza eta berrikuntza sustatzea  
 Lurraldea sustatzea

ENPRESAREN ETA ENPLEGUAREN JARDUERA ETA IZPIRITUA SUSTATZEA

**Txekin programa, etorkizuneko enpresarientzat**

*Txekin programa* pertsona ekintzaileei aholkularitza teknikoa emateko zerbitzuen sistema da eta profesionalak eta zerbitzuak ematen dituzten enpresek dute programaren ardura, enpresa-proiektuen garapenean tutore eta lagun-lana egiteko, hain zuzen ere.

2002. urtean, Departamentuak 338 enpresa-proiekturi lagundu zien oinarriko zerbitzuen bidez; hau da, enpresa-proiektua abian jartzeko negozio-plana egiten eta aholkuak emanaz lagundu genien. Halaber, 161 zerbitzu osagarri eman genuen. Guztirako aurrekontua 700.222 eurokoa izan zen.

**Artisautza sustatzeko plana**

Programak, sektore hau sustatzeko, proiektu berezietarako eta inbertsioetarako 3 laguntza-mota aurreikusi ditu. 2002. urtean 36 eskaera onartu dira, honako xehetasun hauen arabera:

MOTA	ESK. KOP.	ZENBATEKOA
Tailer berriak	7	253.704,81
Dauden tailerrak	25	200.474,35
Elkarteak	4	190.250,17
<b>GUZTIRA</b>	<b>36</b>	<b>644.429,33</b>

**Urrats programa**

*Urrats* ekimenak, Eusko Jaurlaritzarekin (Hezkuntza eta Enplegu Sailekin) elkarlanean, enpresa-proiektuak aztertzeko eta abian jartzeko, DBHOko heziketako ikastetxeen sareko zentro guztietan esparru estandar bat garatzea du helburu.

2002. urtean ekimenean sartu dira gizarte ekimenaren sareko zenbait ikastetxe, baita sare pribatuko zenbait ere. Guztira, 12 enpresa-proiektu onartu dira, 10 prestakuntza-zentroren tutoretzapean garatuak izateko. Horretarako aurrekontua 80,2 milioi eurotik gorakoa izan da.

**Nazioartekotzea**

2002. urtean, 228 mila euro bideratu dira Mexikon eta Brasilen ekoizten duten 2 enpresari laguntzeko eta 2 elkarterk Mexikon, Malasian eta Txinan garatzeko dituzten 3 proiekturi laguntzeko. Halaber, Gipuzkoako Ganbarearekin batera, Txinara misio instituzional-komertzial bat abiatu zen.

— ENPLEGUAREN SUSTAPENA

**European Learning Account Project**

Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak (Hezkuntza eta Lan sailak), europar proiektu honetan laguntzen jarraitu dute. Gipuzkoaren kasuan, proiektua batez ere etengabeko prestakuntzan (*Ikastxekin*, IKTBen arloan irakasleak prestatzeko ekintzen arloan) eramaten da aurrera, bai eta lana aurkitu eta lanbidea aukeratu behar dutenekin (*Txekinbide*, lana aurkitzeko zailtasunik handienak dituzten kolektiboek lana aurkitzea: gazteak, emakumezkoak eta langabezia denbora luzea emandako 40 urtetik gorako pertsonak), eta aukera-berdintasunaren arloan (*Emaweb+*, emakumezkoen lan jarduera tasa areagotzeko programa) ere.

Ekitaldi honetan, alde batetik, sarea osatzen duten herrialdeen kopurua handitu da eta honetan Ekonomi Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundearekiko (ELGE) elkarlana azpimarratu beharra dago, eta, bestetik Londresen ELGERen esparruan (bizitza guztian egin beharreko prestakuntzaren finantziario-ereduak) Gipuzkoako esperientzia "praktika ona" den aldetik aurkeztu egin da.

### Gizarteratzeko/birgizarteratzeko politikak

Arlo honetan, 2002ko ekitaldian, 2,4 milioi eurotik gora bideratu dira ondoren aipatzen diren esparruetarako:

#### Txekinbide

Programa pilotu gisako fasean taloitegia eskatu duten pertsonak 450 baino gehiago izan dira eta horietatik %75etik gora izan dira lan-munduan sartzeko prozesuetan parte hartu dutenak. Horretan ia 700.000 euro inbertitu ditugu. Horregatik, 2002. urtean, heziketaren eskaintza indartu da, baita onuradunen kopurua ere.

2002. urtean, gizarteratzeko taloitegitik kreditu birtualera pasatu da. Horrek hobetu du jarduketa norbanako bakoitzarekiko, baita kudeaketa ere. Beste alde batetik, ekimenaren arrakasta ikusita, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiarekin elkarlanean, esperientzia Bizkaira hedatu du.

#### Gazteen mugikortasunerako laguntza

Atal honetan jarduketa bikoitza bereizi beharra dago: batetik, unibertsitatean zentratutakoa dugu eta, bestetik, lanbide-heziketan zentratutakoa. Azken honetan *Confebaskekin* eta *Hetel*, *Ikaslan* eta *Lanhez* lanbide-heziketako ikastetxeen elkarteekin eragiketahitzarmen bat dugu eta honek onuradunak diren gazteen eta ikastetxeen partaidetza handigoa eta hobe ahalbidetu du.

Hori guztia, Europar Batasunaren programen esparruan burutzen da eta, zehatzago, *Socrates (Erasmus)* edo *Leonardo* programen esparruan. 2002. ekitaldian, programak 501.000 euroko aurrekontua izan du eta 467 beka eman dira.

#### Emaweb

2002. urtean heziketaren eskaintza handitu da eta erakundeen beste ekimen batzuekiko koordinazio hobe izateko ahaleginak egin dira. 130 prestakuntza-ekintzaren bidez parte hartu duten emakumeak 1000 inguru izan dira. Ekimenean, hortaz, guztira 3.000ren bat emakumek parte hartu dute.

2003. urtetik aurrera, Eusko Jaurlaritzaren *KZgunea* ekimenarekin lotutako hitzarmen baten bidez, *Emaweb* zentro horietan garatuko da euren ardurapean. Hala ere, *Emaweb+* eta Departamentuarekin koordinaturik egongo dira horiek.

#### Emaweb+

*Euskadiko Kutxa* babesle, ekimena sendotu egin da eta heziketaren eskaintza ere handitu da (zentro gehiago eta herri gehiagotan). 2002ko ekitaldiko datuen arabera, 800en bat emakumek parte hartu dute 100en bat prestakuntza-jardueraren bidez. Guztira, ekimen honetan parte hartu dutenak 1.800 dira.

## BERRIKUNTZA ETA ENPRESA ZENTROAK, TEKNOLOGI ELKARTEGIAK ETA INDUSTRIALDEAK

### Bic Gipuzkoa Berrilan, S.A.

Hona hemen 2002ko ekitaldian burututako jarduerak<sup>1</sup>:

	ENPRESAK	Z.T.	UNIB/LH	TORIBIO	BIC DIGITAL	GUZTIRA
Bistak/Kontaktuak	70	8	8			86
Ebaluazioa/Harrerak	15	8	20	25	30	98
Kontratuak/Negozio Plana	7	5	10	4	10	36
Bideragarritasun azterlanak/N. Plana	7	5	10	4	10	36
Sortutako enpresak	3	2	2	1	2	10
Garatutako enpresak	5					5
Enplegu-maila	40	10	10	5	10	75
Inbertsio-maila	1.000					1.000
Berrikuntza Jardunaldiak	1					1
Sentsibilizazio Jardunaldiak			1		2	3
Ekintzaileak Prestatzeko Ikastaroak			2		2	4

### CEI-Arrasate

Kooperatiben mundutik hurbilen dagoen tresna, enpresa berritzaileak sortzeko estrategia garatzen duena. 2002ko ekitaldian entitate honi 90.150 euro emanda lagundu diogu.

### Miramongo Teknologia Elkartegiari laguntzea

2002ko ekitaldian elkartegiaren sozietate kudeatzailearen kapitala handitzen esku-hartzen jarraitu dugu; eta hori azpiegitura hori IKTB eta Jakintzaren Gizartearen arloan erreferente bat bihurtzeko politikarekin koherentea izanik.

### Industrialdeak

Batzeko prozesua bukatuta, 18 udal sozietateetatik 10 egotera pasatu da eta jarduteko esparrua eskualdea da. Batze honek baditu hainbat abantaila; hala nola, finantza-alorreko gaitasun handiagoa, jarduteko aldeak arrazionaltasun handiagoz aukeratzea eta dauden giza baliabideak hobeto aprobetxatzea.

*Industrialdeak programaren zenbakizko daturik aipagarrienak hauek dira:*

Sustatutako azalera guztira	334.971 m <sup>2</sup>
Bertan jarritako enpresak	595
Okupatutako enplegua	5.848
Inbertitutako baliabide propioak	89.361.315 euro

<sup>1</sup> Gipuzkoan, Miramon Enpresa Digitala ekimenaren koordinatzaile/kudeatzaile gisa jokatutako rola ondukoak gaineratu beharko litzaizkieke zifra hauei.

## JAKINTZA ETA BERRIKUNTZA SUSTATZEA

### Jakintzaren gizartea sustatzea:

«Gipuzkoa programaren barruan, Departamentu honi Gipuzkoan ekonomia berria sustatzeko eta Gipuzkoako ekonomiaren sektore eta esparru guztietan teknologia guztiak sartzeko eta erabiltzeko jarduketa-ildorik egokienak zehazteko ardura eman zaio. Enpresen dinamismoa eta teknologia berrietan oinarritutako enpresa berriak sustatzeko ardura ere Departamentuarena da.

Jakintzaren gizartearen sustapenean jarduteko neurriak enpresen eta irakaskuntzaren arloan garatutako ekintzen inguruan egituratu dira.

### Gizartearen jakintza gipuzkoako enpresetan

Departamentu honek jarduteko garatu dituen ildo osagarriak 2 dira. Hona hemen:

#### Miramón Digitala

Ekimen honen xedea, informazio eta komunikazio-teknologia berrien erabileraren bitartez, enpresen lehiakortasuna hobetzea sustatzea da eta, aldi berean, Sareko negozio berriak sortzen laguntzea. Ekimenak sentsibilizazio, prestakuntza eta tutoretza-ekintzak aurreikusten ditu. 2002. urtean 781 mila euro baino gehiago bideratu dira 1.384 pertsonak parte hartu duten 14 sentsibilizazio-ekintza burutzeko, 368 pertsonari birziklatzen lagundu dien prestakuntza teknikoko 12 ikastaro egiteko eta 17 enpresa-proiekturi laguntza eta tutoretza emateko.

		2 0 0 2 . U R T E A	
<b>SENTEBILIZAZIOA</b>			
Hitzaldi prestigiotsuak	Ikastaroak		2
	Pertsonak		356
Arrakasta esperientziak	Ikastaroak		6
	Pertsonak		111
Irtenbide teknologikoak	Ikastaroak		4
	Pertsonak		391
Ekintzaile berriak	Ikastaroak		2
	Pertsonak		490
<b>SENTEBILIZAZIOA GUZTIRA</b>			
	Ikastaroak		14
	Pertsonak		1.348
<b>PRESTAKUNTZA</b>			
«Business mintegiak	Ikastaroak		6
	Pertsonak		266
Segurtasunari buruzko Ikastaroak	Ikastaroak		4
	Pertsonak		67
Web orrien test prozesuak	Ikastaroak		2
	Pertsonak		35
<b>PRESTAKUNTZA GUZTIRA</b>			
	Ikastaroak		12
	Pertsonak		368
<b>LAGUN EGITEA</b>			
Maketak.com	Proiektu kop.		7
	Bekadun kop.		8
	Lanorduak		3.644
Kutxa Sarien proiektuak	Proiektu kop.		10

### «Gipuzkoa 2005 programa: «ETE

«Gipuzkoa 2005 Planaren esparruan, «ETE ekimena sortu zen. Azken honen laguntzen xedea Gipuzkoako enpresa txikiak eta ertainak "ekonomia digitalean" sartzeta da eta horretarako horien beharretara egokitutako informazio eta komunikazio-teknologiak erostea eta erabiltzea sustatzen du. Honako hauek izan dira programaren onuradunak:

- 1.- Enpresa txikiak eta ertainak. Hauek informazio eta komunikazio-teknologiak erosteko, garatzeko, egokitzeko eta negozio elektronikoarekin («Business»), marketing elektronikoarekin («Marketing»), erosketekin («Procurement»), merkataritza elektronikoarekin («Commerce»), merkatu birtualekin («Marketplaces»), egoeren analisiarekin, segurtasun

informatikorako sistemen diseinuarekin eta horiek jartzearekin, Internet bidez bezeroekin edo hornitzaileekin jarduteko edo merkataritza-eragiketak egiteko aukera izanez gero enpresaren webgunearen diseinuarekin eta hori jartzearekin eta enpresaren Intraneten edota Extraneten diseinuarekin eta horiek jartzearekin zerikusia duten tresnak eta aplikazioak jartzeko.

2.- Enpresa-taldeak edo elkarteak. Hauek, besteak beste, sektore jakin batzuetara, segurtasun informatikoen sistemetara, horniketa-plataformen garapenera, merkataritza elektronikora eta enpresen sektoreen web atarietara informazio eta komunikazio-teknologiaren tresnak eta aplikazioak egokitzeak.

	Eskaerak	Aurkeztutako zenbatekoa	Emakida
Onetsiak	377	8.329.515,91	2.723.737,25
Gaitzesiak	30	692.686,99	
Bertan behera utziak	49	94.105,00	
<b>GUZTIRA</b>	<b>456</b>	<b>9.116.307,90</b>	<b>2.723.737,25</b>

#### Jakintzaren gizartea irakaskuntzan

*«Gela»*, edo Gipuzkoako Ikastetxeak Informazioaren eta Jakintzaren Gizartean sartzeari, Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean garatzen ari da. Ekimenak 4 jarduketa-mota aurreikusten ditu:

#### Irakasleentzako prestakuntza/Ikastxekin

Informazio eta komunikazio-teknologia berrien arloan irakasleek trebetasunak hartzea helburu duen prestakuntza-programa. Hasieran Lanbide Heziketako irakasleentzat bazen ere, 2002. urtean batxilergoaren ematen duten ikastetxeetako irakasleek ere parte hartu dute. Ekimena abian jarri zenetik programatutako prestakuntza-ekintzetan parte hartu dutenak 2.500en bat izan dira. Honetarako aurrekontua 458.000 eurokoa izan da.

#### Azpiegiturak

Atal honen barruan 2002. urtean lagundutako jarduketetan 2 mota bereiz ditzakegu:

a) Oinarrizko azpiegitura digitalerako azpiegiturak erosteko laguntza. Honako 2 erreferentzia hauek egon dira: batetik, Eusko Jaurlaritzaren *Premia programa* eta, bestetik, konektatzea (intranet/extranet/internet) bermatzea. Horrela bada, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko (DBHO) ikastetxeetan 2 erreferentziak bermatu dira. Jarduketa-ildo honetarako aurrekontua ia 266 mila eurokoa izan da.

b) *«Gela proiektuarentzako»* laguntza: 2002. urtean DBHOko ikastetxe guztietan bizpahiru urteko epean gela digitala deitzen duguna izateko programa jarri da abian. Helburu hori lortzeko 878 mila eurotik gorako inbertsioa dago.

#### Eduki digitalen garapena eta berrikuntza

2002. urtean aurkeztutako proiektuak 2001ean aurkeztutakoak baino konplexuagoak izan dira. Horrek inplikaturako ikastetxeen irakaskuntza/ikaskuntza sistemak hobetzeko bidean eragin handiagoa izatea esan nahi du.

2002ko ekitaldian 12 izan dira laguntza jaso duten proiektu berriak. Horietatik, eskola-komunitatearen (irakasleak, ikasleak eta gurasoak) partaidetza bermaturik, eskola segurtasun telematikoa arloko gaietan trebatzeko proiektu bat abian jarri izana azpimarratu behar da. Horretarako bideratutako inbertsioa ia 270 mila eurokoa izan da.

#### Komunitate birtualen garapena

DBHOko ikastetxeetarako komunitate birtual baten proiektua martxan jarri da. Horretarako badago Eusko Jaurlaritzaren (Hezkuntza Saila) konpromisoa eta zuzeneko partaidetza. Lehen fasean protagonismoa eta lidergoia irakasleena izango da. 2002ko ekitaldian ia 110 mila euro bideratu dira horretarako.

Era berean, 2002ko ekitaldian, *«Administrazioa»* ekimenaren bitartez, *«Learning»* proiektua bideratu da. Honek eskolek (kudeaketa), pertsona onuradunek (prestakuntza/lana) eta Aldundiak (administrazioa) batera, jarduketa integralak garatzea ahalbidetuko du. Aplikazio horren izena *Ikasmina* da.

## I+G sustatzea

### Laguntza eskaintza teknologikorako

Garapenaren arlo estrategiko honetarako Departamentuak ematen dituen laguntzak teknologia generikoen garapenerako ekintzak sustatzea helburu duen *Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Gipuzkoako Sarearen* bitartez bideratzen dira.

2002ko *Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Gipuzkoako Sarea* izeneko programaren barruan honako proiektu hauek izan dira laguntza jaso dutenak:

- \_ Instalazioetan edo ekipamenduetan inbertsioak egiteko proiektuak. Proiektu bat (Cidemco).
- \_ Lehiatu aurreko ikerketa-proiektuak. 64 proiektu eta 2 milioi eurotik gorako diru-laguntzak.
- \_ Teknologiaren zabalkundea eta transferentzia. Proiektu bat (CMIC).

2001. urtetik ikerketa estrategikoko zenbait proiekturi ere laguntza eman diegu. Hona hemen estrategikotzat jotako proiektu horietako batzuk:

### Goi-mailako Errendimenduko fabrikazioa

IDEKO y FATRONIK goi-mailako errendimenduko fabrikazioan ari da eta makina-erreminta, automozioa edo aeronautika fabrikatzen duten enpresa mekanizatzaileen beharrak asetzen ditu. Aldundiak 2001. urtearen amaieran proiektu horri, 2001etik 2003ra artean, 480.000 euro baino gehiagorekin laguntzeko konpromisoa hartu zuen.

### Aplikazio Biomedikoko Material Aurreratuak

INASMET fundazioak INTEBIO institutua sortu du, biomaterialen eta produktu aurreratuen lerroan sakontzeko. Lerro horri laguntzeko, 2001. eta 2002. urteetan 601.000 euro bideratu dira.

### Erregai-pilen Osagarriak eta Material Berriak

CIDETEC fundazioak Departamentuaren laguntza du proiektua bukatzeko. 2001etik 2003ra artean 600.000 euro baino gehiago izango dira proiektu horretarako.

Enpresen I+Gko unitateek aurkeztutako izaera estrategikoko hiru proiekturi ere laguntzak eman dizkiegu sorreran laguntzeko. Laguntza horiek guztira 1.200.000 eurokoak izan dira.

### Laguntzak produktu berriak sortzeko

2002. urtean ia 490 mila euro inbertitu ditugu 37 enpresak aurkeztutako 42 proiektuetatik 14ri laguntzeko.

## LURRALDEA SUSTATZEA

Lurraldea sustatzeko atalean, Ekonomia eta Turismo Departamentua Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako udalekin koordinatuta ari da lanean, astialdi eta negozio turismo eta inbertsio leku gisa Gipuzkoa sustatzeko. Hori guztia *Lurraldea sustatzeko programaren* barruan eta Ekonomia eta Turismo Departamentuak zuzenean egindako jarduketan bidez eraman dugu aurrera.

Lurraldea sustatzeko programaren 2002ko emaitza globalak honako hauek izan dira: 29 proiektu onartu dira; horietatik 11 eskualde-turismokoak dira, 9 turismo-enpresenak dira, 3 misio eta biltzarretakoak eta 6 bestelako epigrafekoak. Horietarako guztietarako ia 450 mila euro bideratu dira guztira.

Beste alde batetik, Departamentuak 2002. urtean zuzenean burututako sustapen-jarduketan zenbatekoa, gutxi gorabehera, 398.600 eurokoa izan da. Hona hemen:

- \_ Hondarribiako aireportuko informaziogunea eta agentzia espezializatu baten bidez modu iraunkorrean berri turistiko positiboak bidaltzea.
- \_ Publizitatea: turismoari buruzko aldizkari espezializatuetan eta lurralde mugakideetako idatzizko prentsan eta irratietan publikitatea argitaratzea "Gipuzkoa txiki bezain handia" eta "Ezagutu ezazu Gipuzkoa" esloganekin.
- \_ Estatuko 6 touroperatorerekin lankidetzan aritzea, euren katalogoetan Gipuzkoako ostatu eta baliabide gehiago sartzeko. 2002. urtean bide profesional horien bidez jasota diren gauak pasatzeko erreserbak bikoiztu egin dira.
- \_ "Fam-trips" bidaiak: prentsarekin eta bidaiagentziekin egindako bidaiak. 2002. urtean 500en bat izan dira ekimen honetan parte hartutako bidai-agentzak.

\_ Turismo sustapenak: Gipuzkoak Eusko Jaurlaritzak antolatutako azoka guztietan (Madril, Bartzelona, Zaragoza eta Valladolid) parte hartu du, baita bere jarduketetan (Gasteiz, Bilbo, Donostia, Conellako eta Frantziako Tolosako azoka) ere.

\_ Material turistikoaren argitalpenak: foiletoak, turismo-mapak, poltsak eta pinak.

\_ Turismoaren web orrian postal birtualen kanpaina. Partaideen artean zozketa bat egin da eta Gipuzkoan asteburu bat emateko 12 sari banatu dira.

\_ Turismoaren sustapenerako erakundeen arteko mahaia diseinatutako jarduketetan izandako lankidetzak: "Fam-trips" bidaiak atzerriko agenteekin edo prentsarekin eta kanpoan egindako sustapenak.

\_ Turismoaren web orria: Gipuzkoako turismoaren web orria eguneraturik eta behar bezala edukitzea. Bertan baliabide eta ostatu-eskaintzak jaso dira eta astero-astero turismoari buruzko berriak argitaratu dira.

\_ kudeaketa telematikoa finkatzea, hala FEDERren, nola EGFn; eta hori estatu-mailan ardura duten agintaritzekin elkarlanean.

#### EFQM-etengabeko hobekuntza prozesua

Azken ekitaldietan Ekonomia eta Turismo Departamentuak barruko prozesuei eta antolaketari buruzko azterketa eta diagnostikoa egiteko lan handia egin du eta horren emaitza dugu EFQM gisako prozesu bat ezarri izana. Horrek hainbat jarduketa dakartza berekin; hala nola, giza baliabideen prestakuntza, antolaketa-mailako hobekuntzak egitea, Departamentuaren lay-out berria jartzea eta Departamentuan intranet bat abian jartzea.

#### Departamentuarentzako kudeaketa tresna informatikoei bultzada ematea

«Gipuzkoa 2005 ekimenarekin koherentea izanik, Departamentuak ahalegin handia egin du pixkanaka-pixkanaka digitalizatzeko. Lan horren emaitza dugu informaziorako eta kudeaketarako zenbait web aplikazio dagoeneko erabiltzeko moduan egotea. Dagoeneko Ekonomia eta Turismo Departamentuak kudeatutako diru-laguntzen programa ia guztiek badute web aplikazio bat kudeaketa-rako eta onuradun entitateek espedienteen jarraipena egin dezaten errazteko. Egun espediente guztien %75en bat izango dira bide horretatik kudeatzen direnak.

#### G2020 HAUSNARKETA ESTRATEGIKORAKO PROZESUA

*Gipuzkoa 2020 (G-2020) Hausnarketa Estrategikorako Prozesuak Gipuzkoako gizarteak parte hartzeko espazio irekia izatea du helburu eta hori Gipuzkoan eta Gipuzkoarentzat etengabeko hausnarketa sustatzeko. Lan egiteko epe luzea hartu da kontuan eta hasierako ekintza gure gizarteak 2020. urtean aurre egin beharko dien erronka estrategikoak definitzea izan da.*

2002. urtean egindako lana batez ere Gipuzkoak etorkizunean jarduteko izan ditzakeen eszenategiak aztertzeke eta prospekzioak egiteko izan da, baita gaitasun beharrekotako errotrak eta ekonomia eta gizarte-mailako eragile guztiekin sustatu beharrekotako elkarreragiketarako aztertzeke ere.

#### BESTE JARDUERA BATZUK

##### Europar Batasunaren fondoek kudeaketa

Ildo honetatik, 2 izan dira 2002. urtean izandako gertakiririk aipagarrienak:

\_ Departamentuek eta udalek parte hartuta eta finantzazioan Europar Batasuna ere partaidea izanik, EAEn aitzindaria den eta jarduketek kudeaketa integrala (administrazio-mailakoa, finantza-mailakoa eta abar) errazten duen intranet bat abian jartzea; eta